



10/2024 TXOSTENA, UZTAILAREN 17KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA

XEDEA: KOSTU-EGITURA ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA, BARAKALDOKO UDAL-MUGARTEKO HIRI-GARBIKETAKO ETA UDAL- HONDAKINAK BILDU ETA GARRAIATZEKO ZERBITZUEN KONTRATUARI DAGOKIONEZ

I.- AURREKARIAK

Barakaldoko Udaleko eskabide bat sartu zen Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren erregistrora, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearentzat. Eskabide horretan, batzorde horri eskatzen zitzaion txosten bat egiteko Barakaldoko udal-mugartereko hiri-garbiketako eta udal-hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuen kontratuaren kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruz, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuaren (ED) 9.7 artikuluari jarraikiz.

Horretarako, kontratuaren hainbat agiri bidali dira, kostu-egiturari eta kontratu horren prezioak berrikusteko formulari buruzko proposamena barne.

Zazpi urtekoa da kontratua gauzatzeko epea.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 29.4 artikulua bigarren paragrafoaren arabera (SPKL), lizitazio-kontratuko administrazio-klausulen agirietan aurreikusten da prezioak berrikusiko direla 55/2017 EDaren 10. artikulua arabera.

Halaber, 55/2017 EDaren 9.7 artikuluari jarraikiz, sektoreko operadore ekonomiko batzuei eskatu zitzaizen kostu-egitura bidaltzeko; jasotako



informazioan oinarrituta, kostu-egituraren proposamena eta jendaurreko informazioaren izapidea egin ziren, eta ez da jaso inolako alegaziorik.

II.- ESKUMENA

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko Dekretua bigarrenaz aldatzen duen 154/2022 Dekretuaren bidez (2022ko abenduaren 28ko EHAAn argitaratua), hamabigarren xedapen gehigarria gehitu zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko 116/2016 Dekretuari.

Hamabigarren xedapen gehigarri horretan, jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrak egin behar duela nahitaezko txostena, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari buruzkoa, eta, horretarako, hogeit eguneko epea izango duela, toki-entitateen eta haren mendeko organismoen edo entitateen txostenaren eskaera jaso, eta hurrengo egunetik aurrera.

Txostenaren irismenari dagokionez, haren ardatz dira Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 EDaren 9.7 artikuluari dagozkion alderdiak.

III.- GOGOETA JURIDIKOAK

Lehenengo eta behin, aipatu behar da kontratu publikoetako prezioak berrikusteko erregulazioa, zeina SPKLn jasotzen baita, egokitu egiten dela Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legean xedatutakora. Ildo horretatik, prezioak ez dira berrikusiko indize orokorren arabera, baizik eta indize espezifikoaren arabera, eta indizeok, berriz, jardungo dute kontratatutako prestazioaren kostu-osagaiak adierazten diren formulen bidez.



SPKLren 103. artikulua arabera, kontratu publikoetako prezioak aldian-aldian eta aurrez zehaztuta berrikusi ahal izango dira, inguruabar jakin batzuetan, alde aurretik justifikatuta eta 55/2017 EDan ezarritakoarekin bat etorritik.

Era berean, 55/2017 EDaren 9. artikulua, zeina baita administrazio publikoen obra-kontratuak eta armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuak ez diren sektore publikoko kontratuetan prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusteari buruz, xedatzen du kontratu horien prezioak aldizka eta aurrez zehazturik berrikusi behar direla, kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro ondoren eta, gutxienez, zenbatekoaren ehuneko 20 bete ondoren, baldin eta kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea bost urtekoa edo gehiagokoa bada, eta hala aurreikusten bada baldintza-agirietan, non zehaztuko baita zer formula aplikatu berrikusteko. Bere aldetik, SPKLren 103. artikulua aukera ematen du energia-kontratuak berrikusteko, kontuan hartu gabe zein diren betetze-ehunekoak edo zenbat urte igaro diren.

Halaber, 55/2017 EDaren 9. artikulua finkatzen du zer eduki izan behar duen kontratazio-espeditari erantsi beharreko memoriak, eta zer aurreikuspen zehaztu behar diren baldintza-agirietan prezioen berrikuspenari buruz; era berean, artikulua horrek ezartzen du berrikuspena ezin dela egin kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea pasa ostean.

Aipatutako 55/2017 EDaren 9. artikulua 7. apartatuaren arabera, bost milioi euroko edo gehiagoko prezioa duten kontratuetarako, kontratazio-organoak nahitaezko txosten bat sartu behar du kontratazio-espeditarian, kostu-egitura baloratzen duena.

Aipatutako 55/2017 EDaren 3., 4. eta 7. artikuluek jasotzen dute zer printzipio eta arau orokorrek arautzen duten nola gauzatu prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena eta nola zehaztu aplikatu beharreko formulak, zeinak, besteak beste, hauek baitira:

- Jarduera gauzatzeko edo kontratuaren objektua betetzeko kostu zuzeneko, ezinbesteko eta handiekiko lotura (> % 1).
- Ondorioz, berrikuspenak gorantz edo beherantz egin ahal izango dira, kostu horien aldakuntzaren arabera.



- Eskulanaren kostua kontuan hartzen bada, aldakuntza ezingo da izan sektore publikoaren zerbitzura dauden langileena baino handiagoa, Estatuko Aurrekontu Orokorretan ezarritakoaren arabera.
- Ez dira inolaz ere berrikusiko amortizazio-kostuekin lotutako kostuak, finantza-kostuak, gastu orokorrak edota egitura-gastuak, ez eta mozkin industrialak ere.
- Operadore ekonomikoaren kontrolpean ez dauden kostuen aldaketak soilik sartu ahal izango dira berrikuspen-erregimenetan. Ulertuko da kostuen aldaketak operadorearen kontrolpean daudela, baldin eta zenbait praktiken bidez saihestu ahal izan badira; adibidez, hornitzailez aldatuta.
- «Enpresaren efizientzia eta kudeaketa ona» printzipioaren arabera, berrikuspen-erregimenak erreferentziatzat hartuko duen kostu-egitura izango da ondo kudeatutako enpresa efiziente batek jasan beharko lukeena, dagokion jarduera aplikatu beharreko araudiak edo kontratuaren klausulek eskatzen duten gutxieneko kalitate-mailarekin garatzeko.
- Era berean, espedientean derrigor txertatuko den memoria batean justifikatu beharko da kontratuaren kalitate-baldintzak eta funtsezko betebeharrak betetzen direla. Hori ezinbestean egin beharko da berrikuspenera egin ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrari dagokio hura bidaltzea. Kontratazio-organoak kostu-egiturari buruzko balorazio-txostena prestatzeko, organo horrek honako hau egin behar du: a) Eskatu sektoreko bost operadore ekonomikori bidal diezaioten nork bere kostu-egitura; b) Egin jardueraren kostu-egituraren proposamen bat, ahal den neurrian, operadore ekonomikoen erantzunetako informazioa baliatuz; c) Jarri jendaurrean 20 egunez kostu-egituraren proposamena, eta d) Bidali kostu-egituraren proposamena aipatutako batzorde iraunkorrari.

SPKLren 103. artikularen 2. apartatuaren arabera, «prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspenera honako kasu hauetan bakarrik izango da posible: obra-kontratuetan, administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuetan, energia-hornidurako kontratuetan eta inbertsioa berreskuratzeko bost urteko edo gehiagoko epea

duten kontratuetan. Epe hori aipatutako errege-dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz kalkulatu da».

Horri dagokionez, otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikulua Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen du, eta inbertsioak berreskuratzeko epea kalkulatzeko formula matematikoa zehazten du:

$$\sum_{t=0}^n \frac{FC_t}{(1+b)^t} \geq 0$$

Non:

- t zenbaki osotan neurtutako urteak dira.
- FC_t t: urtean espero den kutxako fluxua.
- b deskontu-tasa da; balioa izango da azken sei hilabeteetan Espainiaren hamar urterako zorrak bigarren mailako merkatuan batez beste izandako errendimendua, oinarritzko 200 puntuko diferentzian gehituta.

IV. KOSTU-EGITURAREN ETA KONTRATUAREN PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULAREN AZTERKETA

IV.1. Dokumentazioa

Barakaldoko Udalak honako agiri hauek bidali dizkio Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

- Barakaldoko udal-mugarteko hiri-garbiketako eta udal-hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuen ekonomia-azterketa
- Kostu-egitura sektoreko eragile ekonomikoei eskatzea, bai eta jasotako erantzunak ere.
- Bideak garbitzeko eta hondakinak biltzeko etorkizuneko kontratuaren kostu-egitura zehazteko eta prezioak berrikusteko kontratatutako laguntza teknikoaren ondoriozko txostena.

- Erabakia, Barakaldoko udalbatzarena, zeinaren bidez onartzen baitira aurreko txostenetik eratorritako kostu-egitura eta prezioak berrikusteko formula, proposamena jendaurrean jartzea eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari proposamena automatikoki aurkeztea, alegaziorik ez badago nahitaezko balorazio-txostena egin dezan.
- Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko iragarkia, udalbatzak onartutako kostu-egituraren eta prezioak berrikusteko formularen proposamena jendaurrean jarri dela jakinarazteko.
- Alkatetzaren dekretua; horren bidez, alegaziorik jaso ez denez, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari kostu-egituraren eta prezioak berrikusteko onartutako formularen proposamena aurkeztu zaio, Batzordeak nahitaezko balorazio-txostena egin dezan.
- Kontratuaren baldintza teknikoen agiria.
- Kontratuaren administrazio-baldintza partikularren agiria.

Batzordeak uste du nahikoa agiri duela udalak kostu-egiturari eta kostuen berrikuspenari buruz egindako proposamena baloratzeko, eta horretarako bideratuko ditu txostenean jarraian jasotako atalak eta apartatuak.

IV.2. Lizitatuko den kontratuaren azterlan ekonomikoaren azterketa

Espedientea izapidetzeko prozesuan, Barakaldoko Udalak kontratutik espero diren diru-sarrerak eta gastuak jasotzen dituen ikerketa ekonomikoa egin du. Azterketa horren balioak inbertsioaren errepikatze-denbora eta prezioak berrikusteko formularen aplikagarritasuna zehazteko kostu-egitura definitzeko erabiliko diren funtsezko elementuetako bat direnez, jarraian, ekonomia-azterketaren elementuen laburpen bat azalduko dugu.

Azterketa horretarako, Udala, neurri batean, kontratatu nahi den zerbitzuaren egungo adjudikaziodunari dagokion informazioan oinarritzen da, zeina zehaztu gabeko hainbat iturritako informazioa baita.

Jarraian, Udalak kontratuaren urte bakoitzerako lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (LOA) kalkulatzeko erabili dituen balio ekonomiko nagusiak aurkezten dira. Alderatze aldera, Udalak zerrendatutako kontzeptu guztiak

aurkezten dira, kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko txostenean agertzen diren tipologietako batean agregatuta (beste bat dago, are sintetikoagoa; hurrengo atalean agertuko da). Zuzeneko gastu bakoitzaren berariazko pisua ere aurkezten da, nagusiki hurrengo atalean jorratzen den ekonomia-azterketan sortutako kostu-egituraren jatorria argiago uzteko.

Adjudikaziodunari eskatzen zaizkion hasierako inbertsioak, 4.802.000 euroko balio zenbatetsia dutenak, ehuneko bosteko interes-tasa duen finantza-errenta gisa islatzen dira, eta Udalak bere ekonomia-azterketan egindakoa errepikatzen du. Azkenik, gastu orokorrei dagokienez, azpimarratu du Udalak gainerako gastu guztien eta zerbitzuaren ustiapenaren —baimendutako kudeatzaileei papera eta kartoia saltzea— diru-sarrera propioaren arteko zenbateko garbiaren ehuneko zazpi bezala kalkulatu dituela.

	KOSTUA, URTE MOTA	EHUNEKOA
Langileen kostuak	9.756.248,92	85,09
Erregaiak eta lubrifikatzaileak	356.157,14	3,11
Ibilgailuen mantentze-lana eta konponketak	165.729,80	1,45
Lokalen alokairua	136.522,28	11,90
Bestelakoak (<i>ibilgailuekin zerikusirik ez duten mantentze-lanak, bulegoko elementuak, hornidurak, tresna txikia, hondakinen karakterizazioa, pertsonen osasuna eta segurtasuna, saneamendu-sarearen ikuskapena eta beste batzuk</i>)	412.000,00	3,59
Inbertsioak (<i>amortizazio-aldian inbertsioa finantzatuko lukeen finantza-errentaren kostuak ordezkatuta, ehuneko bosteko interes-tasarekin</i>)	639.207,07	5,57
<i>Baliabide materialak (amortizazioa 10 urtean)</i>		
<i>1. urteko inbertsioaren balioaren zenbatespena: 4.402.000 euro</i>	<i>570.079,14</i>	<i>4,97</i>
<i>Instalazio finkoak egokitzea (amortizazioa 7 urtean)</i>		
<i>1. urteko inbertsioaren balioaren zenbatespena: 400.000 euro</i>	<i>69.127,93</i>	<i>0,60</i>
Adjudikaziodunak zuzenean egindako gastuen batura	11.465.865,21	100,00
Papera eta kartoia saltzetik ateratako diru-sarrerak (diru-sarrera endogenoak)	- 64816,66	
Adjudikaziodunaren zuzeneko gastuak, diru-sarrera endogenoek estaltzen ez dituztenak	11.401.048,55	
Gastu orokorrak (<i>diru-sarrera endogenoek estaltzen ez dituzten adjudikaziodunaren gastuen balioaren % 7</i>)	798.073,40	



Mozkin industrialia (<i>diru-sarrera endogenoek estaltzen ez dituzten adjudikaziodunaren gastuen balioaren % 3</i>)	342.041,46	
Guztira, balio erantsiaren zergarik gabe (BEZ)	12.541.153,41	
<u>LOA: guztira, BEZa barne (% 10)</u>	<u>13.795.268,75</u>	

Jarraian, taulan agertzen diren alderdi batzuk garatuko ditugu:

- Kontratuak printzipioz bereizita dauden bi alderditan du oinarri, hiri-garbiketakoan eta hondakinen bilketakoan, baina, ondorio ekonomiko guztietarako, elkarri lotuta daude. Hala, ekonomia-azterketak eta kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko txostenak erakusten dutenez, ez dago arrazoirik ekonomia- eta finantza-azterketak bereizteko.
- Adjudikaziodunak hasieran egin behar duen inbertsioa bi elementu bereizitan datza: baliabide materialetan egindako inbertsioa, hamar urtean amortizatu daitekeena; eta instalazio finkoen egokitzapena, zazpi urtean amortizatu daitekeena. Udalak, adjudikaziodunak hipotetikoki inbertsioak ordaintzeko balioko luketen finantza-errentak kalkulatzeko orduan, inbertsio bakoitzaren amortizazio-epea erabili du, bai eta epe hori kontratuaren iraupena baino luzeagoa denean ere. Udalarari egindako kontsultetan, erantzun du horrela jokatu dela adjudikaziodunak kontratuaren amaieran hamar urteko bizitza baliagarria zuten ondasunen jabetzari eusten dion bitartean; beraz, adjudikaziodunari ondasun horien finantzaketa bere gain hartzea dagokio behin kontratua amaitzen denean.
- Gastu orokorrak (GO) formula honen bidez kalkulatzeko dira:

$$GG = (Gastos\ directos\ del\ adjudicatario - Ingresos\ endógenos) \times 7 \div 100$$

- Mozkin industrialia (MI) formula honen bidez kalkulatzeko da:

$$BI = (Gastos\ directos\ del\ adjudicatario - Ingresos\ endógenos) \times 3 \div 100$$

Oharrak

Batzordearen iritziz, egokiagoa izango litzateke gastu orokorrak eta mozkin industrialak zuzeneko gastuetatik abiatuta kalkulatzeko. Honako taula honetan muturreko kasu hipotetiko bat planteatzen da, Batzordearen proposamenaren (lehen kasua) eta



Udalarenaren (bigarren kasua) arteko desberdintasunak irudikatzeko.

	Kalkulua: GO eta MIak / ZG	Kalkulua: GO eta MIak / (ZG - DS)
Zuzeneko gastuak (ZG)	1.000.000	1.000.000
Esperotako diru-sarrerak (DS), Udalak ordaindutako kanonarekin osatuta	990.000	990.000
Gastu orokorrak (GO, % 7)	70.000	700
Mozkin industrialak (MI, % 3)	30.000	300
Kanona (ZG + GO + MI - DS)	110.000	11.000
Adjudikaziodunak (Kanona + DS) jasotzen du	1.100.000	1.001.000
Mozkina k/ ZG (Jasotakoa - ZG) / ZG * 100	% 10	% 1
Mozkina k/ ZG + GO (Jasotakoa - ZG - GO) / (ZG + GO) * 100	% 2,80	% 0,03

Gastu orokorrak eta mozkin industrialak kuantifikatu bitartean kontratuaren diru-sarrerak alde batera uzten direnean, errentagarritasunak enpresa batek arrazoizkotzat joko lituzkeen balioekin bat etortzen dira, eta lortu nahi den mozkin industrialaren ehunekora hurbiltzen dira (edonola ere, ezinezkoa da balio hori lortzea, gastu orokorrek eta mozkin industrialak duten eragina dela eta).

LOAk, ahal den neurrian, zorrotza eta errealista izan behar du. Era berean, ez da komeni alde batera uztea lizitatzailerik potentzial batek, ziurrenik, kontratuaren potentzial ekonomikoari buruzko barne-kalkulu propioak egingo dituela. Ondorioz, LOA, zenbaitetan, lizitaziorako gehieneko prezio bat baino ez da. Haatik, garrantzi handia du LOAren zehaztasunak egungo dokumentuaren kasuan eta antzekoetan; izan ere, LOAren zenbaitetan erabiltzen diren balioetako asko zuzenean erabiltzen



dira kostu-egiturari eta prezioen berrikuspenari buruzko txostenean, eta Batzordeak ez ditu Udalak Desindexazio Legeak adjudikatzen dizkion betebeharrak betetzeko zenbatesten dituenak baino balio gehiago.

IV.3. Kostu-egituraren eta lizitatuko den kontratuaren prezioak berrikusteko formularen proposamenaren azterketa

Harremanetan jarritako operadore ekonomikoei egindako eskaera, jasotako erantzunak eta udalak zerbitzuaren kostu-egiturari buruz egindako proposamena

Barakaldoko Udala bederatzi operadoreekin jarri zen harremanetan: Audeca SA, Enviser Servicios Medioambientales SA, FCC Medio Ambiente SA, Ferrovial Servicios SA, GBI Serveis SAU, OHL Servicios Obrascón Huarte Lain SA, Prezero España SA, Urbaser SA, Valoriza Medioambiente SA

Operadore horiei kostu-egiturak bidaltzeko eskatu zitzaizkien, hiri-garbiketako eta udal-hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua lortzeko. Ez da bete beharreko eredurik zehaztu.

Barakaldoko Udalak bost erantzun jaso zituen, honako hauen aldetik: Enviser, FCC, OHL, Prezero eta Valoriza.

Audekak, Ferrovialek, GBIk eta Urbaserrek ez zioten Udalaren eskaerari erantzun.

Udalak ez zuenez kostuak bereizteko zein eredu nahi zuen zehaztu, denetariko erantzunak izan ziren. Ondorioz, Udalak normalizatu egin zituen jasotako erantzunak. Hartu ziren neurri nagusiak honako hauek izan ziren: bereizketa-maila uniforme bat ezartzea, gastu orokorren eta mozkin industrialen partidak ezabatzea (gastu horiek sartu zituen operadore bakarraren kasuan), eta, ondoren, gainerako partiden berariazko pisua kalkulatzeko.

Balioen estandarizazioa eta batezbestekoa egin ondoren, Udalak egiaztatu zuen operadoreetako batek batezbestekoaren oso bestelako balioak zituela, eta, beraz, operadore hori kanpoan utzi zen, ezohikoa izateagatik.

Honako taula honetan, lortutako eta ontzat hartutako erantzunen oinarriko elementuak agertzen dira, bai eta udalbatzaren ekonomia-azterketan agertzen zen proposamena ere. «Bestelakoak» kontzeptuaren azpian, ekonomia-azterketan izendapen berdina emandako kontzeptuez gain (ibilgailuekin zerikusirik ez duten mantentze-lanak, bulegoko elementuak, hornidurak, tresna txikia, hondakinen karakterizazioa, pertsonen osasuna eta segurtasuna eta saneamendu-sarearen ikuskapena, besteak beste), lokalen alokairuak agertzen dira, ekonomia-azterketan berezko epigrafea zutenak.

<i>Balioak ehunekotan daude</i>	Udalaren ekonomia-azterketa	Operadoreen tartea	Operadoreen batezbestekoa
Eskulana	85,09	58,79 – 72,58	75,96
Amortizazioa eta finantzaketa	5,57	6,41 – 11,49	9,17
Erregaiak eta lubrifikatzaileak	3,11	3,45 – 6,10	4,85
Mantentze- eta konpontze-lanak	1,45	2,17 – 7,00	5,34
Beste batzuk	4,78	3,40 – 6,22	4,68
Kostuak guztira	100,00		100,00

Udalaren ustetan, operadoreek eskaintzen dituzten balioak berak eskaintzen dituenen antzekoak dira, eta iradokitzen du enpresak oinarritzen diren zerbitzuaren kontzeptualizazioa Udalak egiten duenaren antzekoa dela. Operadoreen erantzunen batezbestekoa hartzen da erreferentzia gisa prezioak berrikusteko formularako.

Oharrak

Udalari eskatzen zaio, etorkizunean kontratuak egitean, kostu-egituraren eredu normalizatua bidal diezaien operadoreei, jasotzen diren datuen normalizazioa egiteko beharra murrizteko

eta, batez ere, tratamendu bereziak, bere iritzian, kostuk merezi dituzten kontrolatzen jarraitzeko. Oraingo kontratuan, Udalak goi mailako kontzeptuak erabili behar izan ditu erantzunak uniformizatzeko modu bakar gisa.

Ondorio posible bat izan da gastu orokorrak eta mozkin industrialak behar bezala ezin islatu izana, prezioak berrikusteko formulak berrikusgarriak ez diren kostu gisa sartu ohi izan baitira; ondorioz, berrikusgarriak diren horiek pisu txikiagoa izango lukete Barakaldok proposatutako formulak agertzen dena baino.

Zein diren berrikus daitezkeen kostuak eta zein ezin daitezkeen berrikusi

Honako taula honek kontratuaren kostuak jasotzen ditu, zeinak berrikusi egin baitaitezke. Berrikusi daitezkeen kostu guztiak berrikusi egingo direla ezartzen da. Taula udalak aurkeztutako arrazoibideetatik abiatuta egin da, eta batzorde honen iritziz udalak zenbait kostu berrikus ezin daitezkeen kostu gisa zehazteko erabili dituen arrazoibide implizituekin osatu da.

	Berrikus daitezke	Arrazoiak	Berrikusi egingo dira
Eskulana	Bai	Ezinbestekoak, nabarmenak	Bai
Amortizazioa eta finantzaketa	Ez	Finantza-gastuak	
Erregaiak eta lubrifikatzaileak	Bai	Ezinbestekoak, nabarmenak	Bai
Mantentze- eta konpontze-lanak	Bai	Ezinbestekoak, nabarmenak	Bai
Bestelako gastuak	Ez	Gastu orokorrak, jasotako gastu asko ez dira adierazgarriak banaka hartuta	

Oharrak

55/2017 EDaren 9.2 artikulua betez, honako hau justifikatu behar da: «...prezioak berrikusteko formularen kontuan hartu beharreko kostu-osagaiak askotan aldatzen dira». Hori honela interpretatu behar da: justifikatu egin behar da desindexazioari buruzko legearen arabera berrikusi daitezkeen kostuak zergatik eguneratu ahal izango diren formularen (eta ez berrikusi ezin direnenak edo berrikusgarriak izanagatik ere kontratuaren testuinguruan errepikatzen ez direnak).

Udalbatzaren iritziz, edozein kasutan, berrikusi daitezkeen hiru kostuak, hasiera batean, elementu aldakor gisa sar daitezke berrikusteko formularen, eta oharrak soilik legeak kontratatzaileari eskatzen diona betetzeari buruz ohartarazi nahi du, ez Udalaren txostenari buruz.

Berrikusteko formula

Hau da udalak proposatzen duen berrikusteko formula:

$$P_t = 0,7596 \times Ip_t + 0,0485 \times \frac{Cl_t}{Cl_0} + 0,0534 \times \frac{M_t}{M_0} + 0,1385 + P_0$$

Adierazten da azken formula lau hamartarrekin adieraziko dela.

Udalak honela definitzen ditu formularen elementuak:

- t : berrikuspena zein urtetarako egiten den. Kontratuaren % 20 bete arte prezioak berrikusiko ez dituztenez, t -k 3 eta 7 arteko balioak hartuko ditu.
- P_t : t bakoitzerako adjudikazio-prezioari aplikatu beharreko berrikuspenehunekoak.
- Ip_t : langileen kostuen eguneratze-indizearen balioa, t urterako eskulanaren kostuaren aldakuntzaren ehunekoaren arabera. Era berean, adierazten da aldagai hori sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak izandako gehikuntzara mugatuko dela gehienez ere,



berrikuspena egingo den urteko Estatuko Aurrekontu Orokorren legeen arabera. Muga hori 55/2017 Errege Dekretuaren 5. artikuluan dago.

- Cl_t : erregai eta lubrifikatzaileen kostuen maila t urterako.
- Cl_0 : erregai eta lubrifikatzaileen kostuen maila 0 urterako.
- M_t : mantentze-lanen eta konponketa kostuen aldakuntzaren ehunekoa t urterako.
- M_0 : mantentze-lanen eta konponketa kostuen aldakuntzaren ehunekoa 0 urterako.

Aldagai bakoitzari balioak esleitzeko erabiltzen diren indizeei dagokienez, udalak honako hauek hartzen ditu:

Berrikus daitekeen kostua	Erabilitako indizea (hiperestekako loturarekin)
Eskulana	Itundutako batez besteko soldata-aldakuntza metatua, enpresa baino goragoko esparrukoa, «Hondakinak biltzea, tratatzea eta ezabatzea» 38. dibisiokoa, kontratua formalizatzen den hilabetetik prezioa berrikusten den hilabetera arte (Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa)
Erregaiak eta lubrifikatzaileak	Klaseen indize nazionala (harmonizatuak, 2015 oinarri), 0722 Ibilgailu pertsonaletarako erregaiak eta lubrifikatzaileak (EIN)
Mantentze-lanak eta konponketak	Klaseen indize nazionala (harmonizatuak, 2015 oinarri), 0723 Ibilgailu pertsonaletarako mantentze-lanak eta konponketak (EIN)

Eskulanari dagokionez, eta jada aipatutakoari dagokionez (hau da, langileen kostua sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien arabera izango dela), aipatu behar da aplikatuko den lehen eguneratzearen kasu partikularrean (ustez kontratuaren hirugarren urtearen hasieran), erreferentziako indizearen igoera *agregatua* funtzionarioen soldataren igoera *agregatuarekin* alderatuko dela.

Oharrak

55/2017 EDaren 7.4 artikulua betez, zeinak baitio erreferentziako indizeek ahalik eta bereizien egon behar dutela,



komenigarriagoa izango litzateke Barakaldoko udal-eremuan hiri-garbiketako eta hondakinen bilketako eta garraioko jardueretan aritzen diren langileei aplikatzen zaien sektoreko hitzarmenean itundutako igoerak baliatzea.

Deskontu-tasa eta inbertsioa berreskuratzeko aldia

Deskontu-tasa lortzeko, begiratzen da zein den, txostena egiten den unean, batez besteko errendimendua hamar urtera Espainiako zorraren bigarren mailako merkatuan, informaziorik berriena zegoen azken sei hilabeteetan (2023ko abuztutik 2024ko urtarrilera), eta oinarrizko 200 puntu areagotzen zaizkio. Hori guztia 55/2017 EDaren 10.2 artikulua araberak. Eragiketa honen emaitza da ehuneko 5,54ko deskontua izango dela.

Kutxako fluxuak kuantifikatzeko, txosten honetan aurretik aurkeztutako balioak hartzen dira abiapuntutzat, ekonomia-azterketatik ateratakoak. Lehenengoa ez den beste urte batzuetarako, balio gehienak urteko ehuneko 1,9ra eguneratzen dira, ustez inflazioaren isla gisa, baina txostenean ez da horren aipamenik egiten. Udalak ordaindutako kanona mantendu egingo da bigarren urtean zehar, ez delako espero ekitaldi horretan prezioak berrikustea, ez delako gainditu ehuneko hogeiko exekuzio maila. Hirugarren urtetik aurrera, balio hori urteko ehuneko 2,7ra eguneratuko da. Azkenik, lehen urterako gastu orokorren maila bat zenbatu da, ekonomia-azterketan ezarritako baldintzetan, baina kontratuak iraun artean balio hori ez eguneratzea erabaki da.

Hala, inbertsioa berreskuratzeko epeari dagokionez, Udalak uste du inbertsioa itzultzeko epea zazpi urtekoa dela, eta kontratuaren epe osoa behar dela inbertsioa berreskuratzeko. Desindexazio legearen ikuspegitik, horrek esan nahi du prezioen berrikuspena kontratuaren hirugarren urtea hasten denetik egingo dela (gauzatzearen ehuneko hogeiki gainditu denetik prezioak berrikusteko lehen aldia delako), eta kontratuaren azken urtetik aurrera (ordura arte ez zelako inbertsioa berreskuratuko).

Oharrak

Dirudienez, Udalak, lehen aipatu den moduan (eta Udalarekin kontsultatu ondoren), inbertsioaren zati gisa adjudikaziodunak

kontratua amaitutakoan geratuko diren baliabide materialak berreskuratuko dituela jaso du. Ibilgetu honek hiru urteko bizitza baliagarria du (guztira, hamar urte direnean) kontratuaren ostean, eta, ondorioz, Udalak ez du kontuan hartu behar ibilgetuaren zati horri dagokion inbertsioa berreskuratzeko zatia. Horrek, berez, nabarmen murriztuko luke inbertsioari lotutako kutxako fluxu negatiboa, eta hori ondorengo ekitaldian emaitza garbi positiboekin konpentsatu behar da.

Bestalde, ez dakigu zergatik konpondu duen Udalak kutxako fluxuen inflazioaren auzia modu horretan. Uste da gastu batzuk gutxietsi egin direla eta, aldi berean, kontratistaren diru-sarrera nagusia, hots, kanona, gainbaloratu egin dela.

Era berean, beste behin aipatu da Udalak ekonomia-azterketan mozkin industrialak eta gastu orokorrak kalkulatzeko duen modua urrundu egiten dela Batzordearen ustez egokiena den irizpidetik, eta, ondorioz, kutxako fluxuaren azterketan, gastu orokorrak eta kanona gainbalorizatzen direla.

Gainera, kontuan izan behar da deskontu-tasak «garrantzi handiagoa eman behar diela» oraingo datatik hurbilen dauden balioei.

Horregatik guztiagatik, egiaztatu da irizpide-desadostasunak daudela, eta auzi hori konponduz gero, inbertsioa berreskuratzeko aldiari zenbait modutan eragingo lioketela, aldi hori laburtuz edo luzatuz. Udalbatzak agertokiak sortu ditu, non inbertsioaren itzulkin-denbora sei urtekoa zein zortzi urtekoa den, egiten diren zuzenketen arabera.

Esan behar da kontratu honetan eta antzekoetan (bost urte baino gehiagoko iraupena duen zerbitzu-kontratua, adjudikaziodunak bere gain hartzen dituen inbertsioak errentagarri bihurtu ahal izateko beharregatik soilik) itzulkin-



denbora aldatzeak, prezioen berrikuspena aplikatu behar den moduari ez ezik, kontratuaren izaerari berari ere eragiten diola.

Aurrekoarekin zuzeneko loturarik ez badu ere, gogorarazten da berrikuspenak kontratuaren benetako betearazpenari egokitu beharko zaizkiola, eta, ondorioz, prezioak berrikusteko aukera dagoen aldia aldatu ahal izango duela, benetako gauzatze-erritmoaren arabera.

V. ONDORIOAK

Barakaldoko udal-mugartean hiri-garbiketako eta udal-hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratuari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legea, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legea eta 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretua zenbateraino bete diren aztertu da, kostu-egiturari eta prezioak berrikusteari dagokienez. Udalbatzaren ustez, azaletik bete dira aipatutako xedapenak, baina akats txikiak daudela egiaztatu da, matematikari eta finantzaketari dagozkion erabakiak ere bai. Azken horiek, hein handi batean, kostu-egitura diseinatu eta prezioak berrikusteko formula diseinatu aurretik formulatu dira, eta eremu horietan lortutako ondorioak zalantzan jartzera eraman dezakete, eta, zeharkako ondorio gisa, kontratu honen baldintza partikularrek eraginda, lizitatu beharreko zerbitzua bera birformulatu beharra egon liteke.

Ondorioz, Barakaldoko udal-mugarteko hiri-garbiketa eta udal hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren kontratuaren kostu-egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko **txostena egin da**.